# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia | Iruña, 2022ko ekainaren 7a | 74. ZK.

**A U R K I B I D E A**

G SAILA:
**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**
—Urdazubiko Udalaren gomendioen jarraipenari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).
—Nafarroako Kontuen Ganberaren lehendakariaren ebazpena, zeinaren bidez Erakunde horren Erregelamendu ekonomiko-finantzarioaren testu bategineko 20. artikuluko 1. paragrafoa aldatzen baita (28. or.).

**G saila:**
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

# Urdazubiko Udalaren gomendioen jarraipenari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko ekainaren 6an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Urdazubiko Udalaren gomendioen jarraipenari buruzko fiskalizazio txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

**1.** Urdazubiko Udalaren gomendioen jarraipenari buruzko fiskalizazio txostenaren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea (10-19/CCO-00012).

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko ekainaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## Urdazubiko Udalaren gomendioen jarraipenari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina

### AURKIBIDEA

**I.** Sarrera (3. or.).

**II.** Urdazubiko Udala (4. or.).

II.1. Udalaren alderdi orokorrak (4. or.).

II.2. Energia banatu eta merkaturatzeko sistema Urdazubin (5. or.).

**III.** Helburuak eta norainokoa (7. or.).

**IV.** Konklusioak (7. or.).

IV.1. Urdazubiko Udalari buruzko txosteneko gomendioen jarraipena (8. or.).

IV.2. Energia banatu eta merkaturatzeko Urdazubiko sistemaren azterketa eta berrikuspena (18. or.).

IV.3. Amaierako konklusioa (20. or.).

Behin-behineko txostenari egindako alegazioak (21. or.).

Kontuen Ganberaren erantzuna behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioei (27. or.).

## I. SARRERA

Kontuen Ganberak Urdazubiko Udala fiskalizatzeko txosten bat egin zuen 2011ko uztailean, 2009ko urtealdiari buruzkoa, kontrako iritzia emanik bai finantzez, bai legezkotasunaz.

2019ko urtealdian, Parlamentuak egindako eskaria jaso zen aipatu udala fiskalizatzeko eta hura Kontuen Ganberaren 2020ko Jarduketa Programan sartu zen. 2022ko urtealdirako onetsitako Jarduketa Programaren II. Eranskinean aipatu fiskalizazio lana egiteko zegoela jaso zen, eta Ganbera honen iritziz, egokiagoa zen 2011ko uztaileko gure aurreko txostenean emaniko gomendioen jarraipen txostena egitea.

Txosten honek lau atal ditu, sarrera hau barne; bigarrenean, udalari loturiko alderdi orokorrak deskribatu dira; hirugarrenean, txostenaren helburuak eta norainokoa zehaztu dira eta, laugarrenak, berriz, egindako lanaren konklusioak jaso ditu.

Landa-lana 2021eko abendutik 2022ko otsailera bitarte egin zuen auditoretzako bi teknikarik eta auditore batek osatutako lantaldeak, betiere Kontuen Ganberaren zerbitzu juridikoekin eta administratiboekin lankidetzan.

Eskerrak ematen dizkiegu Urdazubiko Udaleko langileei, lan hau egitean emandako laguntzagatik.

## II. URDAZUBIKO UDALA

### II.1. UDALAREN ALDERDI OROKORRAK

Urdazubiko udalerria Nafarroako iparraldean dago, Iruñetik 80 kilometrora eta 7,54 $km^2$ da luze-zabaleran. Zugarramurdi du mugakide, bai eta Frantziako Ainhoa eta Sara udalerriak ere.

2021eko urtarrilaren 1eko datuen arabera, 348 biztanle ditu, herriaren erdigunean eta Alkerdi, Dantxarinea, Landibar, Leorlaz, Telleria, Hiribere eta Larrainta auzoetan banaturik.

Mugaldean egoteak markatu du eta egun markatzen du inguru horretako ekonomia.

Honatx udal langileak: idazkari eta kontu-hartzaile bat, Zugarramurdiko Udalarekin partekaturik, zerbitzu anitzetako langile bat eta administrari-laguntzaile bat.

Hona hemen 2020. urtealdiko aurrekontu-betetzea, azken urtealdi likidatua baita, eta Kontu Orokorra onetsia, txosten hau eman den datan:

| Diru-sarrerak | Eskubide Aitortu Garbiak |
|---|---|
| Guztira | 1.658.705 |

| Gastuak | Betebehar Aitortu Garbiak |
|---|---|
| Guztira | 1.669.463 |

Aplikatu beharreko arau-esparrua honakoek osatzen dute, funtsean:

• 6/1990 Foru Legea, uztailaren 2koa, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa.

• 2/1995 Foru legea, martxoaren 10ekoa, Nafarroako Toki Ogasunei buruzkoa.

• 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki-araubidearen Oinarriak arautzen dituena.

• 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testu bategina onesten duena eta 2/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 23koa, Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onesten duena.

• 2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, Kontratu Publikoei buruzkoa.

• 1/2017 Legegintzako Foru dekretua, uztailaren 26koa, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duena.

• Aurrekontu-kontabilitatearen arloan, araubide juridikoa 270/1998 eta 273/1998 Foru Dekretuetan dago ezarria, bai eta 234/2015 Foru Dekretuan ere.

Arestian aipaturiko esparru horretaz landara, eta kontuan harturik lan hau egiteko denbora-tartea, zenbait kasutan, 2009ko ekitaldiraino ere zabaldu dela, bestelako arauak ere hartu dira aintzat, egun indargabeturik egon arren:

• 10/1998 Foru Legea, ekainaren 16koa, Nafarroako Administrazio Publikoen Kontratuei buruzkoa.

• 6/2006 Foru Legea, ekainaren 9koa, Kontratu Publikoei buruzkoa.

## II.2. ENERGIA BANATU ETA MERKATURATZEKO SISTEMA URDAZUBIN

Urdazubik bere instalazio bati esker eman du beti elektrizitatea, errota zaharrean kokatua, monasterio zaharreko fraideek eraikitako ubide baten bitartez elikatua. 60ko hamarkadan, estatuko sarera konektatu nahi izan zen. Iberduerok,[1] ordea, ezezkoa eman zuen; ondorioz, Frantziako elektrizitate-merkatura jo zuen[2], Industria Ministerioak baimendurik; hortaz, nazioarteko konexioa da. Aipatu energia banaketa-sare bereki baten bidez banatzen da, laurogeita hamarreko hamarkadan berritua eta modernizatua.

Egun indarrean dagoen arau-esparrua Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legea bada ere, 1997an sektore elektrikoa pixkanaka liberalizatzeko prozesua hasi zen eta, ondorioz, besteak beste honako ondorioak izan zituen bai jarduerei dagokienez, bai diharduten subjektuei dagokienez:

a) Jardueren desintegrazio bertikala, honakoak bereizita:

• Garraio eta banaketa jarduerari dagokion monopolio naturaleko araubidean egindako jarduerek (banaketa-instalazioen eraikuntza, eragiketa eta mantentzea, energia kontsumo-guneetan kokatzera bideratuak), jarduera arautuen izaera dute.

• Lehia libreko araubidean garatzen diren jarduerak; besteak beste, merkaturatzea, gainerako jarduerekiko jarduera independente gisa. Merkaturatzearen barnean energia erostea dago, gero kontsumitzaileei edo sistemako beste subjektu batzuei saltzeko, eta horretarako, hirugarrenen garraio eta banaketarako instalazio-sareetara sartu beharra dago.

b) Merkataritza-sozietateei, garraio, banaketa eta merkaturatze arloko eginkizunak ematen zaizkie, besteak beste.

c) Bereizketa juridikorako betebeharra ezarri zen jardueren merkatu liberalizatuan, hots, batetik, garraio eta banaketa jarduerak eta, bestetik, ekoizpen edo hornidura jarduerak (kontsumitzaileari saltzea).

Energia arautzeko esparruan funtsezko aldaketak egin dira eta, horren ondorioz, etengabe aldatu eta eguneratu da; Europak elektrizitatearen barne merkaturako emaniko hurrenez hurreneko Zuzentarau eta Erregelamenduetan kokaturiko aldaketak izan dira. Udala honela egokitu da energia arautzeko esparruaren bilakaerara:

a) 2001eko apirilean, “Elektra Urdazubi S.L” sozietatea sortu zuen. Sozietatearen kapitala 3.010 eurokoa izan zen, bere osoan udalak jarria. 2007an, sozietatearen xedea aldatu zuen eta honela gelditu zen: “*Energia elektrikoaren banaketa, energia elektrikoaren banaketa-instalazioak eraikitzeko, mantentzeko eta operatzeko eginkizunarekin, kontsumo guneetan kokatzea, aldez aurretik poliza edo salmenta energetikoko kontratua eginik”.* Sozietate horrek eraldakuntza zentroak eta linea elektrikoak ditu, goi nahiz behe dentsitatekoak.

b) 2013an, “Comercializadora Urdazubi S.L.” sozietatea sortu zuen. Sozietatearen kapitala 3.010 eurokoa izan zen, bere osoan udalak jarria. Hona hemen sozietatearen xedea: “*Jarduera, obra eta zerbitzu bereki mota guztiak egitea edo energia elektrikoa merkaturatzeko eta inportatzeko negozioekin edo elektrizitatearen eta haren aplikazioen eratorriekin zerikusia dutenak”*.

Gaur egun, hornikuntza elektrikorako kudeaketa jarduerak honela egiten ari dira Urdazubiko udalerrian:

a) “Elektra Urdazubi S.L.” sozietateak banaketa eta garraioa egiten du sarean, bere xede sozialarekin bat.

[1] Ekoizpen-enpresa hidroelektrikoa da, 1944an sortua eta 1991n desagertua, merkataritza-absorzioaren bidezko fusio prozesu baten bidez, Iberdrola sortuta.
[2] Erosketa jatorriz Frantziakoa den argi multinazional merkaturatzaile bati egiten dio, Frantzian eta Europako gainerako lekuetan elektrizitatea sortu, hornitu eta banatzen duena, eskualdeko ekoizle nagusia dena.

b) Udalak berak elektrizitatea erosi eta azken kontsumitzailea hornitzen (salmenta) du eta, ondorio horietarako, energiaren merkaturatzailea da “izatez”. Eragiketa horiek Udalaren gastuen eta diru-sarreren egoeraren parte dira.

c) “Comercializadora Urdazubi S.L.” udal sozietateak ez du jarduerarik.

## III. HELBURUAK ETA NORAINOKOA

Lan honen helburua izan da 2011ko uztailean Kontuen Ganberak egindako txosteneko gomendioen betetze-mailari buruzko jarraipena egitea. Hala ere, adierazi nahi dugu aipatutako helburuaz gain, gure berrikuspena lana gauzatzean ikusi ditugun gai edo alderdietara zabaldu dugula, uste izan baitugu horiek oro behar bezain esanguratsuak direla gure fiskalizazioaren irismen objektiboan sartzeko.

Gure lanaren denbora-esparruak 2020ko ekitaldia hartu du, horixe izanik Udalak onetsitako Kontu Orokorra duen azken ekitaldia, baina behar izan diren egiaztapenak egin dira beste ekitaldi batzuei buruz, ezarritako helburuak hobeki lortze aldera.

## IV. KONKLUSIOAK

### *Urdazubiko Udalaren erantzukizuna*

Udaleko kontu-hartzailetzak Kontu Orokorra osatzeko ardura dauka, Udaleko aurrekontuko likidazioaren, ondarearen, emaitzen eta udaleko finantza-egoeraren irudi fidela adieraz dezan, betiere aplikatu beharreko finantza-informazio publikoaren arau-esparruarekin bat; ardura horren baitan dago barne kontrol egokia sortu, ezarri eta mantentzea Kontu Orokorra prestatu eta aurkezteko, iruzurrak edo akatsak eragindako huts materialik gabe.

Udalak bermatu behar du urteko kontuetan jasotako jarduerak, aurrekontu eta finantza arloko eragiketak, eta informazioa bat, datozela aplikatu beharreko arauekin eta, halaber, beharrezkotzat jotzen dituen barne kontrolerako sistemak ezarri xede horretarako.

### *Nafarroako Kontuen Ganberaren erantzukizuna*

Ganberak 2011ko uztaileko txostenean egindako gomendioen betetze-mailari buruzko konklusio bat azaltzea da gure erantzukizuna.

Horretarako, erantzukizun hori bete dugu kanpo kontroleko erakunde publikoen fiskalizaziorako oinarrizko printzipioen arabera. Printzipio horiek behartzen gaituzte etika-eskakizunak betetzera eta auditoretza halako moduz planifikatu eta egitera non ezagutza egokia lortuko baitugu gomendioak betetze aldera erabilitako prozedurez, kasua bada, bai eta taxuzko ziurtasun bat ere, informazioa oker materialik gabekoa eta alderdi adierazgarri guztietan araudi indardunaren araberakoa izateari buruz.

Gure iritziz, lortu dugun auditoretza-ebidentziak behar adinako oinarri egokia jasotzen du ateratako konklusioei funtsa emateko.

## IV.1. URDAZUBIKO UDALARI BURUZKO TXOSTENEKO GOMENDIOEN JARRAIPENA

Honako irizpide hauen arabera kalifikatu dugu gomendioen betetze-maila:

| Kategoria | Deskribapena |
|---|---|
| Osoan edo funtsean aplikatua | Baldin eta zuzentze-neurriak –zentzuzkoak eta proportzionalak– hartu badira, horri buruzko behar adinako ebidentzia egonik, modua ematen dutenak irizteko ezen gomendioa eraginkorra izan dela eta ez dela ebazkizun geratu munta nabarmeneko inolako gairik |
| Partzialki aplikatua | Baldin gomendioa aintzat hartu bada, baldin akatsak, ahuleziak edo gabeziak zuzentzeko urratsak egin badira, baina hasierako fasean baino ez, haien parte batean bakarrik edo alderdiren batean baino ez, eta, ondorioz, gomendioa moduz bete izandakotzat jo ezin izanik. |
| Aplikatu gabea | Ez bada egin akatsak, ahuleziak edo gabeziak zuzentzeko jarduketarik, edo eginiko jarduketak ez badira aski edo ez badira egokiro egin, halako moldez non gomendioak aplikatu gabe jarraitzen duen. |
| Baliogabea egungo esparruan | Txostena egin zenean balioduna eta egokia izan arren, egungo testuinguruan ezin aplikatuzkoa den gomendioa, horretarako moduko zirkunstantziarik ez dagoenez edo txostena egin zen uneko egokiera bera gertatzen ez denez. |
| Egiaztatu gabea | Entitateak onartu egin du gomendioa, are aplikatu eta zuzendu, baina froga gehigarriak beharko lirateke azaldutakoa egiaztatzeko, eta horrek lanaren norainokoa gaindituko luke. |

Ondoren, hona hemen zer emaitza lortu diren egindako gomendioetako bakoitzerako. Arlootan antolatu ditugu:

***Barne kontrola***

• *Barne kontrolerako sistema bat diseinatzea kontularitzari buruzko informazioa ziurtatzeko eta akatsak atzematea ahalbidetzeko.*

Gomendio hori partzialki aplikatu da. Izan ere, kontabilitate arloko informazioaren egiazkotasuna ziurtatu badaiteke ere, egiaztatu dugu oraindik ere hobetzeko daudela berrikuspen eta kontrolari buruzko zenbait alderdi, akatsak atzemateko orduan segurtasun handiagoa emate aldera.

• *Eragiketa ekonomikoen sortzapen eta erregistro arloko kontabilitate printzipioak betetzea eta finantzatze desbideratzeak ongi kalkulatzea finantzazio atxikiko gastuetan.*

Eragiketa ekonomikoen sortzapen eta erregistro arloko kontularitza printzipioak betetzeari dagokionez, gomendio hori osoan edo funtsean aplikatu da.

Finantzazio-desbideratzeen kalkulu zuzena betetzeari dagokionez, gomendio hori ez da aplikatu, alderdi hori inbertsioen atalean egindako laginaren obra-kontratu[3] batean egiaztatu baitu. Obra hori 2017an lizitatu zen, baina 2018an gauzatu zen eta, zati batean, Europar Batasuneko funtsekin finantzatu da eta, beste batean, 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Planaren bidez[4].

Egiaztatu dugu 2018ko ekitaldian finantziazio desbideratze negatiboak kalkulatu direla, kalkulu hori egiteko baldintzak bete gabe. Egokiak ez diren finantzazio desbideratze negatiboak Aurrekontu Emaitza eta Diruzaintza Gerakina egoeretan sartzeak berarekin dakar balio handiegia ematea emaitzei zuzenean; beraz, ez da zuzena. Bestalde, aipatu egoeretan sartu diren beste desbideratze batzuk ezin izan ditugu egiaztatu, ezta haien jatorria eta egokitzapena ere; horrenbestez, beharrezkotzat jotzen dugu are jarraipen, kontrol eta egiaztapen handiagoa egin behar izatea finantzazio desbideratzeen gainean.

• *Eragiketa ekonomikoen kontabilizazioan atzerapenik ez izatea.*

[3] Urdazubiko udalerriko edateko ur horniduraren aldaketa integrala
[4] 18/2016 Foru Legea, abenduaren 13koa, 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Plana arautzen duena.

Gomendio hau osoan edo funtsean aplikatu da, ez baitugu atzeman eragiketa ekonomikoen kontabilizazioan atzerapen nabarmenik, hau da, finantza-egoeretan ondorio esanguratsurik izan dezaketenik.

• *Kontabilitate datuak Udalean dauden datu-baseetako informazioarekin erkatzea, hala nola zerga-bilketarekin, edo beste iturri batzuetakoekin, hala nola aurkeztutako zerga-aitorpenekin.*

Gomendio hori partzialki aplikatu da; izan ere, ezin izan dugu egiaztatu kontrastatzeko edo berdinkatzeko prozedura formalik dagoenik, baina egiaztatu ahal izan dugu ez direla esanguratsuak, ez datu-baseen arteko desbideratzeak, ez zerga-aitorpenenak ere.

• *Jasotako fakturen erregistroa ezartzea*

Gomendio hori osoan edo funtsean aplikatu da; izan ere, egiaztatu dugu jasotako fakturen erregistro bat eta faktura elektronikoen erregistroa ezarrita dituztela, aplikatu beharreko araudiarekin bat.

• *Dokumentazioa antolatzea, administrazio-espedienteak osatzea eta artxibo-sistema hobetzea*

Gomendio hori partzialki aplikatu da; izan ere, gure konklusioak euskarritzeko dokumentazioa eta informazioa mugarik gabe eskuratu ahal izan baditugu ere, oraindik ere dokumentazio eta/edo dokumentu jakin batzuek hobekuntza behar dute berrikusitako artxiboen integrazioari eta konexioari dagokienez.

Adierazi dugu, halaber, 2018ko ekitaldian espediente elektronikoa ezartzen hasi zela udaleko alor aunitzen kudeaketa egiteko; egun, ezarpena eta kudeaketa aski aitzinaturik daude; hortaz, aitzinamendu handia da, gure aurreko fiskalizazio-txostenean atzemandako gabezien aldean.

***Aurrekontua eta Kontu Orokorra***

• *Aurrekontua dagokion ekitaldi ekonomikoa hasi aitzinetik onestea.*

Gomendio hau ez da aplikatu, egiaztatu baitugu 2017tik 2021era bitarteko ekitaldietako aurrekontuak onetsi eta argitaratu direla aurreko urteko abenduaren 31 baino hainbat hilabete geroago, aplikatzekoa den araudiak ezarritakoaz bertzela.

• *Kontu orokorra epe barnean osatu eta onestea, indarrean den legerian ezarritako prozedurarekin bat.*

Gomendio hau partzialki aplikatu da. Izan ere, 2018ko Kontu Orokorra epe barnean onetsi bazen ere, 2019ko eta 2020ko urtealdietakoak, berriz, ez ziren onetsi aplikatzekoa den araudian ezarritako epe barnean.

• *"Elektra Urdazubi S.L" udal enpresa publikoaren kontuak formulatzea.*

Gomendio hau osoan edo funtsean aplikatu da, egiaztatu baitugu 2018 – 2020 aldian aipatu udal sozietatearen kontuen formulazioa eta ondorengo onespena jasoa dela. "Comercializadora Urdazubi S.L." sozietateari dagokionez, jarduerarik ez izan arren, haren kontuak ere formulatu eta onetsi dira.

• *Gastuen izaera mugatzailea errespetatzea, eta kreditu aldaketak bideratu eta onestea aurrekontuetan behar adina diru ez duten gastuak egin baino lehen"*.

Gomendio hori ez da aplikatu, egitate hauek egiaztatu baititugu:

a) 2018ko ekitaldian, "Urdazubiko Udalerriko edateko ur horniduraren aldaketa integrala" obra-kontratuaren likidazioak ehuneko 9,12ko gastu igoera erakarri zuen esleitutako zenbatekoaren aldean, eta lotespen burtsaren muga gainditu zen, baina kreditua doitu gabe aurrekontua aurrez behar bezala aldatuz.

b) 2020ko ekitaldian, aldaketa bakarra egin zen aurrekontuan, aldi berean onetsi baitziren kreditu-osagarri bat eta kreditu berezi bat, eta hori onetsi zen kreditu nahikorik ez duten edo

existitzen ez diren kredituen gaineko betebeharrak aitortu ondoren. Bestalde, aldaketa horri dagokionez, egiaztatu dugu ez dagoela jasoa haren behin betiko onespena; eta hori nahitaezkoa da indarrean sartzeko, 2/1995 Foru Legearen 214. artikuluak ezarritakoarekin bat[5].

***Langileria***

• *Plantilla organikoa onestea eta enplegatuei ordaintzea, hartan adierazi eta onetsitako ordainsarien arabera.*

Gomendio hau partzialki aplikatu da, plantilla organikoen onespenari dagokionez. Izan ere, egiaztatu dugu, egia bada ere 2018ko, 2019ko eta 2020ko ekitaldietako plantilla organikoak ekitaldi guztietan onetsi eta argitaratu direla (2019ko urtealdiko plantilla izan ezik, ez baitzen argitaratu), urtealdi bakoitzeko abenduaren 31 baino geroago izan dela, tokiko araudian ezarritako epeak gaindituruk.

Enplegatuei plantilla organikoan adierazi eta onetsitako ordainsarien arabera ordaintzeko gomendioa, berriz, ez da aplikatu, honakoa egiaztatu baitugu:

a) Idazkari/kontu-hartzailea 2002. urteaz geroztik ari da bere eginkizunak betetzen; urte hartan araubide administratiboan kontratatu baitzuten. Araubide horretan kontratatutako langileez adierazten dugu, ezen Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren 2019ko ekainaren 20ko epaia betearazte aldera[6], Nafarroako Foru Komunitateak urriaren 23ko 4/2019 Foru Lege Dekretua onetsi zuela, Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko langileen arloko presako neurri batzuk onesten dituena, eta beste neurri batzuen artean, graduari dagokion ordainsaria aitortzen die Nafarroako Administrazio Publikoetan administrazio araubidean kontratatuak dauden langileei. Berrikuspenaren ondorioz, ikusi dugu ez dela graduari dagokion kobrantza jaso; hortaz, ordainsari horiek erregularizatu beharko lirateke.

b) Administrari-laguntzailearen lanpostuaren araubide juridikoa funtzionarioa zen 2020 aurreko plantilla organikoetan. 2020ko urtealdiko plantillan, aipatu lanpostuaren plantillako araubide juridikoa aldatu eta lan-kontratudun gisa ageri da.

Hala ere, aipatu lanpostuari atxikitako langileak aldi baterako eta behin eta berriz bete du lanpostua, 2004ko urtealdiaz geroztik, elkarren segidako lan kontratu mota ezberdinen arabera. 2020ko urtarrilaren 1ean, kontratu-kodea aldatu zen Gizarte Segurantzaren ondorioetarako, eta mugagabe ez finko gisa katalogatu zen, arlo horretan jurisprudentziak eman berri duen irizpidearekin bat.

c) Zerbitzu Anitzetako Enplegatuaren lanpostuaren araubide juridikoa plantilla organikoan D mailako funtzionarioa da eta hutsik dago, hartan ari zenak 2019ko urtealdian erretiroa hartu zuenetik. Bestalde, 2016ko apiriletik, langile bat kontratatu zen lan-araubidean zerbitzu anitzetako enplegatua izateko, E mailari dagokion ordainsariarekin, aldi baterako eta, iraupenari dagokionez, obra bukatu arte.

Aipatu enplegatuak udalean segitzen du lanean, nahiz eta gainditu duen Langileen Estatutuak aldi baterako kontratu motetarako aurreikusia duen gehieneko epea. 2020ko plantilla organikoko langileen zerrenda izendunean, aurreko funtzionarioaren lanpostu hutsari atxikia ageri da; atxikipen hori okerra da. Izan ere, bide bakarra dago plantilla organiko bateko lanpostu hutsa aldi baterako betetzeko, hots, dagokion merezimendu eta gaitasuneko hautapen-prozesu egokia eta nahitaezkoa eginez, eta administrazio araubidean kontratatu behar da; beraz, egoera hori erregularizatu behar da.

Nolanahi ere, adierazten dugu badela kasuan kasuko enplegu-eskaintza publikorako deialdia egiteko aukera, 2022. urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 22/2021 Legearekin bat, horrela segurtasun juridikoa eta egonkortasuna emanen baitzaizkio udal plantillari.

[5] Abenduaren 29ko 22/2020 Foru Legeak, 2021eko urtarrilaren 1ean indarrean sartu zenak, aipatu artikulua aldatzen du, eta NAOn ez argitaratzeko aukera ematen du, betiere Aurrekontua Betearazteko Oinarrietan aurreikusten bada. 2021erako Aurrekontua Betearazteko Oinarrietan, Udalak salbuespen hori aurreikusi du.

[6] Epaiak hauxe ezarri zuen: graduari dagokion ordainsaria aitortzerakoan, administrazio araubidean kontratatutako langileak kanpoan uzteak 1999/70/EE Zuzentaraua urratzen zuela.

• *Jasotako ordainsariei kasuan kasuko atxikipenak egitea eta egindako PFEZ atxikipenak Ogasunari likidatzea.*

Gomendio hau partzialki aplikatu da. Izan ere, egindako PFEZ atxikipenak Ogasunean likidatu eta sartu dira, baina egiaztatu dugu atxikipenak ez zaizkiela ongi egiten lau langileetatik hiruri, taula fiskaletan ezarritakoa baino tasa txikiagoa aplikatu delako.

• *Espediente pertsonalean jasotzea enplegatuei buruzko inguruabar pertsonalak eta haiei buruz ematen diren administrazio-egintzak.*

Gomendio hori osoan edo funtsean aplikatu da.

• *2007. eta 2008. urteetako gastu ordaindu gabea ematea Zugarramurdiko Udalari, idazkari partekatuaren gastuari dagokiona.*

Zugarramurdiko Udalak ehuneko 38ko partea du idazkari partekatuaren gastuan. 2011. urtealdiko fiskalizazioan, nagusiki ikusi zen 2007. eta 2008. urtealdietako likidazioa ez zela soldata gordinaren gainean egin, baizik eta soldata garbiaren gainean; horrenbestez, likidazioa egiazki zegokiona baino txikiagoa zen.

Gomendio hori ez da aplikatu. Izan ere, egiaztatu dugu oraindik ere ez dela ongi egiten. Horrela, 2020an, 13.684 euroko diru-sarrera aitortu txikiagoa atzeman genuen.

***Gastu arruntak ondasun eta zerbitzuetan***

• *Kontratuak arautzeko pleguetan ezarritako baldintzak betetzea; besteak beste, esleipendunekin kontratua formalizatzea eta ezarritako fidantzak eskatzea.*

Ganberak 2011ko txostenean egindako gomendioa, nagusiki, kontratu hauei buruzkoa zen:

a) Ikaburuko leizeetan sartu, bisitatu eta zaintzeko zerbitzua, tabernaren ustiapena, bisita gidatua errotara eta San Salbatore monasteriora, guztiak ere esleipendun bakarrari esleituak zeudenak.

b) Kontabilitate arloko aholkularitza.

Gomendio hori ez da aplikatu. Gure lanean, izan ere, arestian aipatutako kontratuez gain, zerbitzu esanguratsuenen lagin bat berrikusi dugu.

Hona hemen zer lagin berrikusi genuen eta horrek zer gastu eragin duen 2018-2020 epealdian:

| | 2018 | 2019 | 2020 | Total |
|---|---|---|---|---|
| Ikaburuko leizeetan sartu, bisitatu eta zaintzeko zerbitzua, tabernaren ustiapena, bisita gidatua errotara eta San Salbatore monasteriora | 110.649 | 113.029 | 62.645 | 286.322 |
| Kontabilitate arloko aholkularitza | 20.250 | 40.320 | 29.321 | 89.891 |
| Energia elektrikoa erostea | 447.911 | 613.768 | 562.457 | 1.624.136 |
| Zabor bilketa | 135.242 | 109.786 | 105.732 | 350.760 |
| Elektra Urdazubi S.L. udal sozietatearen kudeaketa | 32.227 | 44.408 | 38.258 | 114.893 |
| Hirigintza arloko aholkularitza | 40.704 | 37.229 | 27.987 | 105.920 |
| Udala, garbiketa | 18.121 | 18.752 | 27.067 | 63.840 |
| Publizitatea | 13.540 | 10.266 | 15.020 | 38.826 |
| Kultur jarduerak | 18.023 | 19.849 | 8.052 | 45.924 |
| Iturgintza zerbitzuak | 6.466 | 23.092 | 21.714 | 51.272 |
| Zerbitzu profesionalak abokatuak | 69.644 | 89.398 | 20.518 | 179.560 |
| Aseguruak | 14.711 | 15.041 | 14.404 | 44.156 |
| Guztira | 927.488 | 1.134.937 | 933.175 | 2.995.600 |

Taulan ageri den informaziotik, hauxe nabarmenduko dugu:

• *Ikaburuko leizeetan sartu, bisitatu eta zaintzeko* zerbitzua, *tabernaren ustiapena, bisita gidatua errotara eta San Salbatore monasteriora.* Kontratu hori 2008ko abenduaren 23a esleitu zen, “Kudeaketa interesatua” formulapean, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 1990/6 Foru Legearen 201. artikuluan aurreikusitakoarekin bat. Bost urteko iraupena zuen,

luzagarria beste 5 urterako; haren indarraldia, beraz, 2018ko abenduan bukatu zen. Zerbitzua, oraindik ere, aurreko esleipendunak ematen du.

• *Zabor bilketa.* Zerbitzua Frantziako mankomunitate batek ematen du eta Urdazubiko eta Zugarramurdiko Udalek elkarrekin sinatutako hitzarmena du oinarri.

Ondasun eta zerbitzuetako gastu arrunten atalari dagokionez, adieraziko dugu berrikusitako zerbitzu guztiak urteko gastu errepikakorrak direla, nahiz eta haietako batzuk[7] unean uneko premiengatik gastu handi-txikiak dituzten zerbitzuak izan, haien beren ezaugarrien ondorioz. Lankidetza hitzarmen bat oinarri duen zabor-bilketarako zerbitzua izan ezik, gainerako zerbitzu fakturatuetan ez dago jasoa inolako kontratazio-espedientea dagoenik eta, ondoren, lizitazio publikora atera denik, aplikatzekoa den kontratu-araudian aurreikusitako esleipen-prozedurekin bat. Horrenbestez, egoera hori erregularizatu beharra dago.

• *Gastuak sortzapen irizpidearen arabera kontabilizatzea.*

Gomendio hori osoan edo funtsean aplikatu da.

• *Egindako gastu guztia justifikatzea*.

2011ko Ganberaren txostenean, gomendio hori protokolozko arreta gastuei zegokien. Gomendio hori osoan edo funtsean aplikatu da, egindako berrikuspenaren arabera. Izan ere, egiaztatu dugu horrelako gastuak behar bezala eta aski daudela oinarrituak eta justifikatuak.

***Inbertsioak***

• *Obren kontratazioetan lehia bermatzea.*

Gomendio hori osoan edo funtsean aplikatu da. Izan ere, 2018-2020 aldian egindako obrei buruzko egiaztapenetatik, ulertzen dugu lehia bermatzen ari dela haien kontratazioan, aplikatzekoa den kontratu-araudian aurreikusitako esleipen-prozedurekin bat.

Honatx egindako lagina:

| | Berrikusitako espedienteak | ORN | Esleipen prozedura | Guztira ORN Inbertsio kap. |
|---|---|---|---|---|
| 2018 | Urdazubiko Udalerriko edateko ur horniduraren aldaketa integrala[8] | 1.569.599 | Irekia, EBn publizitaterik egin gabe | |
| | Zuntz optikoa | 58.955 | Negoziatua publizitaterik gabe | |
| | Obra Maskonekobordako bidea | 49.758 | Sinplifikatua | |
| Guztira | | 1.678.312 | | 1.736.126 |
| 2019 | Kontagailu aldaketa Landibar auzoa | 15.814 | Munta txikiko eta esleipendun ezberdineko hiru kontraturi dagozkie. | |
| | Argiteria publikoko obra, hirigunea | 49.372[9] | Munta txikiko kontratua | |
| | Argiteria publikoko obra, Leorlaz auzoa | 37.473 | Munta txikiko kontratua | |
| | obra Katalingo bidea | 40.066 | Munta txikiko kontratua | |
| Total | | 142.725 | | 276.259 |
| 2020 | Kontagailuak eta tutuak aldatzea | 16.830 | Munta txikiko 4 kontraturi dagozkie | |
| | Obrak bideetan | 21.494 | Munta txikiko 3 kontraturi dagozkie | |
| Guztira | | 38.324 | | 84.104 |

[7] Hirigintza aholkularitza, publizitate instituzionala eta kultur jarduerak, iturgintza eta abokatuen zerbitzu profesionalak.
[8] Obra honen lizitazioa 2017ko irailean egin zen, Kontratuei buruzko 6/2006 Foru Legearekin bat, une hartako legeesparru indarduna baitzen, haren exekuzioa eta likidazioa 2018an egin baziren ere.
[9] Hasierako aurrekontua txikiagoa zen 40.000 euroko balio zenbatetsia baino, munta txikiko kontratu gisa hasiera batez tramitatzeko.

• *Kontratu-legerian eta administrazio-klausulen agirietan ezarritako baldintza formal guztiak betetzea; besteak beste, esleipendunarekin kontratua formalizatzea, ezarritako fidantzak eskatzea, exekuzio-epeak behar bezala ez betetzeagatik zehapenak jartzea, zuinketa egiaztatzeko akta eta obra hartzeko akta formalizatzea, eta aurrekontu-kreditua egotea gastu esleitua egiteko.*

Gomendio hori ez da aplikatu. Izan ere, Urdazubiko Udalerriaren “edateko ur hornidurearen aldaketa integrala” obra-kontratua berrikusirik, ikusten bada ere egokitu dela kontratuen esparruan ezarritako baldintza eta formalitateetara, esanguratsutzat jotzen ditugun honako gabezia hauek atzeman ditugu:

a) Obra hori 2017ko urtealdian lizitatu zen. Idazki/kontu-hartzaileak eteteko eragozpen-arrazoi bat eman zuen kreditu aski ez zegoelako eta, ondorioz, nahitaezko aurrekontu-aldaketa proposatu zuen. Osoko bilkurak eragozpen-arrazoia ebatzi zuen, gastua eta kasuan kasuko kontratazio-espedientea onetsiz, betiere aurrekontu-aldaketa aurrez izapidetu gabe.

b) Pleguetan ageri den balorazio ekonomikoa ez da egin proportziozko matematika-formula linealaren bidez; beraz, jaitsiera-ehuneko jakin batetik aurrera puntuazioa proportzio txikiagoan esleitzen zaio eskainitako jaitsierari.

c) Obra hasteak dakarren zuinketa akta hiru hilabeteko atzerapenarekin egin zen, kontratua sinatu zenetik, eta ez dago jasoa atzerapenaren justifikaziorik.

d) Obra 2017an esleitu zen, baina 2018ko ekitaldian hasi eta gauzatu zen; esleitutako zenbatekoaren aldean, azkeneko desbideratzea ehuneko 9,12koa izan zen. Horri dagokionez, hauxe adieraziko dugu:

- Ez zen jaso, ez balio zenbatetsian, ez pleguetan, ezta esleipenaren ebazpenean ere, gehienez % 10eko kreditu orokor bat ezar zitekeela, Kontratu Publikoei buruzko 2006/6 Foru Legeak ezarritakoarekin bat,[10] kontratua aldatzeko espedientea aurrez eta nahitaez izapidetu behar ez izateko.

- Azkeneko obra-ziurtagiriak desbideratze hori hartzen du barne, betiere aurrez aurrekontua aldatzeko nahitaezko espedientea izapidetu gabe, inbertsio-partidan nahikoa krediturik ez izateagatik.

- Bai obra-unitate berriengatiko prezio kontrajarrien proposamena, bai kontratazio-organoak prezio haiek onartzea, azken ziurtagiriaren ondoren egina dago.

e) Pleguetan eta, ondoren, kontratuan ezarritakoaren arabera, obra sei hilabeteko epean egin behar zen, zuinketa egiaztatzeko akta formalizatu eta biharamunetik zenbatzen hasita. Horri dagokionez:

- Zuinketa akta 2018ko otsailaren 14an sinatu zen.

- Obraren azken ziurtagiria 2018ko abenduaren 18koa da, eta harrera-akta 2018ko abenduaren 21ekoa da, hau da, obra egiteko epeak lau hilabetean gainditu ditu kontratuaren xedapenak, eta ez dago jasota atzerapen hori justifikatzen duen dokumentaziorik. Horren ondorioz, ezin dugun adierazi epearen atzerapena kontratistari edo udalari egotz dakiokeen, hala badagokio, baldintza-agirietan aurreikusitako penalizazioak ezartzea eskatzeko.

• *Udal-intereseko obretarako ekarpenek, esleipen-irizpide gisa sartutakoek, behar besteko identifikazio-mailarekin aurreikusita egon behar dute pleguetan, eta behar bezala identifikatzeko aukera emanen duten baldintzak, mugak, modalitateak eta ezaugarriak adierazi behar*

[10] Obra-kontratua lizitatu zenean indarrean zegoen lege-esparrua.

*dituzte, kontratuaren xedearekin zuzeneko lotura izan behar dute eta eskaintzaren balorazioa handitzeko modua ezarri behar da. Halaber, haien betekizuna eskatu behar da.*

Gomendio horrek ez du baliorik egungo egoeran. Izan ere, egiaztatu ditugun pleguetatik ez da ezarri esleipen-irizpide gisa.

Inbertsioen arloko konklusioak amaitzeko, adierazi behar dugu 2011ko uztaileko gure txostenean salbuespen gisa jaso zela ez zegoela inbentario eguneratu eta baloraturik, Egoera Balantzean sartutako ondasunak babesteko. Txosten horretan alderdi horri buruzko gomendiorik aurreikusi ez dugun arren, in-bentario bat ote dagoen egiaztatu dugu, eta egiaztatu dugu, halaber, 9.037.184 euroko balioa duen ondasun-zerrenda bat duela; hala ere, ez dago eguneratuta, azken erregistroak 2015ekoak baitira, eta 2.273.289 euroko aldea dago egoeraren balantzeko ibilgetuan 202ko abenduaren 31n jasoa dagoen balioarekin.

***Aurrekontuen bidezko diru-sarrerak***

• *Hiri-lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga ordainaraztea*

Gomendio hori osoan edo funtsean aplikatu da. Izan ere, 2011tik 2020ra bitarteko aurrekontuak betetzeari buruzko datuak azterturik, hainbat urtealditan likidazioak daude jasota, zehazki:

a) 2011ko urtealdian, udalak 2009an 2008tik 2010era bitarteko epealdirako onetsi zuen Ikuskapen Planaren ondorioz.

b) 2015etik 2017ra, baina ez dago jasota zerga horren likidaziorik 2018tik 2020rako aldian.

Horren haritik eta, adierazitako azken epealdi horri dagokionez, nabarmenduko dugu zerga horretan aldaketa bat izan dela, Auzitegi Konstituzionalak 2017ko ekainean emaniko epaiaren ondorioz[11], Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen zenbait artikulu inkonstituzionaltzat eta baliogabetzat jo zituena. Horren ondorioz, balio gehikuntzarik gabeko transmisio haietan egindako likidazioak baliogabetu ziren.

Auzitegi Konstituzionalaren epaiak ekarritako ziurgabetasun juridikoaren ondorioz, oro har, udal gehienetan 2017ko uztailaren ondoko likidazioak geldiarazi ziren, hots, balio gehikuntzarik ez zela izanen aurreikusi ez zen likidazioei dagokienez. Epaiak lege-aldaketa eragin zuen toki ogasunaren esparruan eta, Nafarroako Foru Komunitateari dagokionez, abenduaren 27ko 19/2017 Foru Legea onetsi zen. Legean izaniko aldaketa horien ondotik, egiaztatu dugu 2021ean likidazioak izan direla.

Hala ere, adieraziko dugu komeniko zela Udala plataforma[12] jakin bati atxikitzea, zerga horri loturiko eragiketak egiteari buruz izan daitekeen ziurgabetasuna ezabatzeko. Plataforma horretan, zerrenda informatizatu bat dago jasoa, notarioek Notaritza Elkargoetara bidali beharrekoa Hiri-lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergaren zerga-gaia egin izana agerian uzten duten egitate, egintza edo negozioei buruz; eta 2/1995 Foru Legearen 178.7 artikuluarekin bat, notarioek kasuan kasuko udalei igorri behar dizkiete. Euskarri informatiko horrek[13] nabarmen errazten du aipatu tributuaren kudeaketa eta ikuskapena udalen aldetik.

• *Behar diren prozedurak ezartzea, egiaztatzeko subjektu pasiboek jarduera ekonomikoen gaineko zergak zergapetutako jardueretan izaniko aldaketak jakinarazten dituztela, eta aldaketa horiek eragina dutela zerga horren kuotak finkatzeko orduan.*

Gomendio hori osoan edo funtsean aplikatu da. Izan ere:

a) Aurrekontua betetzeari buruzko datuak azterturik, batetik ikusten da diru-bilketa nabarmen handitu zela 2011ko eta 2012ko urtealdietan, aurreko atalean aipaturiko ikuskapen planetik eratorritako zor eguneratzeen eta erreklamazioen ondorioz.

[11] Auzitegi Konstituzionalak, ondoren, beste epai bat eman du 2021eko urriaren 26an (TC 182/2021 epaia).
[12] www.ancert.com
[13] Ziurtapeneko Notaritza Agentziaren web zerbitzari segurua, Notariotzaren Kontseilu Nagusiaren enpresa teknologikoa, ziurtagiri digitalaren berme egokiekin prozesatzen duena.

b) Bestetik, 2021etik aitzina, zerga horren bidezko diru-bilketa ia bi halako da aipatu ikuskapena baino lehen biltzen zen dirutza baino, eta era arrazoigarrian konstantea mantendu da 2020ko urtealdira arte.

Egindako egiaztapenen ondorioz, egiaztatu dugu 2020an egindako likidazioak zuzenak direla.

• *Udalak ordainarazitako tasak arautzeko ordenantza fiskalak onestea.*

Gomendio hori ez da aplikatu. Izan ere, egiaztatu dugu, udalak 2009az geroztik, Ordenantza Fiskal Orokor bat indarrean izan arren, oraindik ere ez du onetsi Udalak gaur egun ordainarazten duen tasa bakoitzari buruzko ordenantza fiskala.

• *Hondakinak bildu eta tratatzeko tasen eta ur hornidurako tasen zenbatekoa onestea eta, era berean, urtealdi bakoitzean leizean sartzeko sarreren prezioak.*

Gomendio hori ez da aplikatu. Izan ere, egiaztatu dugu oraindik ere ez direla onetsi aipatu tasak arautzeko ordenantza fiskalak, ezta leizeetan sartzeko prezioak ezartzeko erabakiak ere. Egoera hori erregularizatu beharra dago, ez bakarrik formari dagokionez, hau da, ordenantzak onetsiz, baizik eta era berean kobratu beharreko zenbateko bakoitza euskarritzen duen kasuan kasuko kostu-azterlana eginez.

• *Leizeetako tabernatik eta haietan sartzeagatik biltzen diren diru-sarrerak kontrolatzeko prozedurak egiaztatu eta aplikatzea, hots, aipatu zerbitzuen esleipendunak Udalari likidatutakoak.*

Gomendio hori osoan edo funtsean aplikatu da. Izan ere, egindako prozedura ikuskatu eta egiaztatu dugu kontrola hobetu dela. Izan ere, udalean kontabilitate zerbitzua ematen duen enpresak hilero egiaztatzen du esleipendunak aitortzen dituen diru-sarrerak bat ote datozen banku-laburpenekin, ondoren behar diren doikuntzak eta berdinkatzeak eginik esleipendunari hilero ordaintzen dioten diru-bilketa gordinaren ehuneko 50en ordainketan.

Hala ere, arestian adierazi dugun bezala, kontratua ez dago indarrean eta beste lizitazio bat egin beharra dago.

• *Diru-sarreren kontabilizazioan sortzapen irizpidea aplikatzea.*

Gomendio hori osoan edo funtsean aplikatu da.

• *Xareta tabernaren alokairua urtero eguneratzea, errentariarekin sinatutako alokairu-kontratuan ezarritako irizpideekin bat.*

Xareta tabernaren alokairuaren bidez, udalaren lokal bat errentan utzia da taberna gisa erabiltzeko. Udalak prezio bat jasotzen du hilero, tabernaren lizitazio bakoitza arautzeko pleguan ezarria. 2011ko, 2016ko eta 2021eko urtealdietan egindako lizitazioak berrikusi eta hauxe egiaztatu dugu:

a) KPIri dagokion eguneratzea 2011ko lizitaziotik aplikatu zen 2016ko urtealdiko lizitaziora bitarte. Hala ere, Udalak ez zuen kobratu 2011-2015 epealdiko diru-sarrera metatua (27.231 euro), eta zor horrek kobratu gabe jarraitzen du kontabilizatua zirriborro hau egin den datan, preskribaturik egonik ere. Eta ez dago jasoa udalak behar diren ekintzak eta nahikoak egin dituenik aipatu epealdian zorra erreklamatu eta kobratzeko.

b) 2016ko lizitaziori dagokionez, errentariak hileko saria ordaintzeari utzi zion ia alokairu-kontratua gauzatzen hasi zenetik beretik. Udalak, 2017an, demanda-idazki bat aurkeztu zuen auzitegietan, errentak edo zor ziren kopuruak ez ordaintzeagatik, bai eta kaleratze-eskaera ere. Urriaren 9an, Iruñeko Lehen Auzialdiko 7. Epaitegiak 000523/2017 Dekretua eman zuen, udalak sustaturiko kaleratze-epaiketa bukatutzat emanik, hura exekutatzera premiatuta eta demandatua prozesuko kostuak ordaintzera kondenatuta, betiere jasota utzirik zor ziren 20.893 euroko errenten erreklamazioa gehi demandaren ondotik sortutako errentak, harik eta lokala egiazki berreskuratzen den arte.

Gure landa-lana egitean egiaztatu badugu ere udalak ez zuela inolako zenbatekorik kobratu erreklamatutako zor hartatik, adieraziko dugu martxoaren 18an udalak auto judizial bat igorri digula, 2022ko martxoaren 15ekoa, arestian aipaturiko ebazpen prozesalaren exekuziorako agindu orokorra emanik, eta halaber, errekerimendua eginik betearazpenpekoari, exekuzioan eskatu zaion zenbatekoa estaltzeko adina ondasun eta eskubideen zerrenda aurkezteko.

c) 2017-2021 epealdian, lokala itxita egon da eta, 2021eko urtealdian, berriz ere lizitatu da, kontratua 2021eko maiatzean esleituta. Haren tramitazioa berrikusi dugu eta zuzena da.

Aurreko kontratua berrikusteaz gain, egiaztatu dugu ba ote dauden bertze udal espazio batzuk alokatuta edo lagata, eta honako hau egiaztatu dugu:

a) San Salbatore Monasterioko klaustroa artelanak erakusteko erabiltzen da eta enpresaburu bati dago alokatua. Enpresaburuak margolanak saldu eta kultur erakusketak egiten ditu.

Espazio horren erabilerari dagokionez, jasota dago hitzarmen bat sinatu zela alderdien artean 2008ko apirilaren 1ean. Bertze klausula batzuen artean, aipatu hitzarmenean ezarria dago udalak 5.000 euro gehi BEZa jasoko dutela urtero; zenbateko hori urtero berrikusi behar da, Estatuko KPIren arabera. Gure berrikuspena eginik, honakoa dugu adierazteko:

• Aipatu espazioaren erabilera pribatuari ez zitzaion dagokion lizentzia edo emakida eman, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legean ezarritakoarekin bat.

• Ez da KPIren araberako inolako eguneratzerik egin, hitzarturikoarekin bat; horren ondorioz, txosten hau emateko datan, 6.258 euroko zenbatekoa eragin da eta ez zaio esleipendunari erreklamatu. Zenbateko horretatik, 2.139 euro preskribatuak leudeke eta, gainerakoa, berriz (4.119 euro) erreklamatu beharra dago.

b) Turismo bulegoaren zerbitzua udalaren jabetzako lokal batean ematen da, leizeen bisiten esleipendunak berak kudeatua, eta ez dago jasoa esleipen-espedienterik, kontratu arloko esparruarekin bat.

Turismo bulegoan "souvenirrak" saltzen dira, eta leizeetarako ezarritako antzeko prozedura erabiltzen dute diru-sarrera horietarako, hau da, udalean sartu eta erdi bana (% 50) banatzen dira udalaren eta esleipendunaren artean. Urte akaberan, turismo bulegoaren kudeaketaren erregularizazioa egiten da eta, urtean, udalak 12.000 euro ordaintzen dizkio.

Arestian azaldutakoaren arabera, batetik ulertzen dugu ez dela aplikatu errentak eguneratzeko gomendioa eta, bertzetik, adieraziko dugu aplikatzekoa den ondare-esparruarekin bat lizitatu behar direla partikularrek ustiatu edo erabil ditzaketen udal espazio guztiak.

• *Lurzoruaren udal ondarea kudeatzea eta haren erregistroa sortzea, bertan era justifikatuan jasota gelditzeko lursailen diru-sarrera edo eskudirua eta haien irteera, hirigintza-legerian ezarritako xedeetarako.*

Gomendio hori ez da aplikatu. Izan ere, egiaztatu dugunez, ez da sortu Lurzoruaren Udal Ondarearen Erregistroa; ondorioz, ezinezkoa da toki entitatearen gainerako ondasunen kudeaketa bereizia, aplikatu beharreko hirigintza-araudiek ezarritakoarekin bat.

***Aurrekontuz kanpoko eragiketak***

• *Aurrekontuz kanpoko kontuak berrikusi eta garbitzea eta aurrekontuz kanpoko hartzekodunen eta zordunen jarraipena egitea.*

Gomendio hori partzialki aplikatu da. Izan ere, gure berrikuspenean ikusi badugu ere hurrenez hurreneko saldoen berrikuspena eta garbiketa egin dela (gehienak 2009ko urtealdiaren aurrekoak), honakoa dago erregularizatzeko:

a) Udal sozietatearen 258.172 euroko saldo zorduna, gure aurreko fiskalizazioan atzemandakoa; erabat identifikatua dago, bai eta erregularizatzeko ere 2022ko urtealdi honetan, udalaren konpromisoarekin bat.

b) Zugarramurdiko Udalari dagokion 4.317 euroko saldo hartzekoduna, kitatzeko dagoena. Horri dagokionez, adieraziko dugu alegazioen agiriko aurrekontuz kanpoko eragiketen 6. alegazioan, udalak frogatu duela aipatu saldoa kitatu duela 2022ko apirilaren 6an, kopuru hori ordainduz. Horrenbestez, egoera hori erregularizatu da.

c) PFEZko 2.729 euroko saldo hartzekoduna; egiaztatu dugu zenbateko hori neurriz kanpo balioztatu dela, justifikaziorik jasota egon gabe.

d) Oraindik ere ordaintzen zaio Nilsari saneamendu-kanon fakturatua, bildutako zenbatekoaren ordez, araudian ezarritakoarekin bat.

• *BEZ likidazioak kasuan kasuko urtealdian kontabilizatzea*.

Gomendio hori osoan edo funtsean aplikatu da.

***Aurrekontu itxiak***

